

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

312/2020 Foru Agindua, uztailaren 21ekoa, zeinaren bidez arautzen baita zer baldintzatan adierazi ahal izango duten zergapekoek zein egunetan ezingo duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak zerga jakinarazpenik haien esku jarri bere egoitza elektronikoa.

Ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, zehazten du zer zergapekok egin behar dituzten zerga arloko tramite eta komunikazioak bitarteko elektronikoak erabiltza, eta, orobat, esaten du Zerga Administrazioak bere eskumenen barruan egiten dizkien komunikazio eta jakinarazpen administratiboak bide elektronikoz jaso behar dituztela zergapeko horiek.

6. artikulua dioenez, Ogasun eta Finantza Departamentuak egiten dituen jakinarazpen elektronikoetarako sarbidea Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa egongo da, eta haietan sartzeko beharrezkoa izango da nork bere burua identifikatzea sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatueta oinarritutako sistemak erabiliz edo Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen pasahitz operatiboaren bitartez.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketara eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 63. artikulua 8. apartatua jasotakoaren arabera, zergapekoek, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru aginduz ezarriko duen eran, gehienez ere 30 egun natural adierazi ahal izango dituzte urte natural bakoitzaren barruan, eta egun horietan departamentuak ezin izango du jarri haien esku inolako jakinarazpenik Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.

Era berean, apartatu horretan esaten da ezen jakinarazpena atzeratzen bada zergapekoak aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraituz egindako adierazpenagatik, atzerapen hori Zerga Administrazioari egotzi ezin zaion luzamendutzat joko dela, Zergen Foru Arau Orokorrak 100.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako. Dena den, esandakoa ez denean bateragarria jarduketa administratiboak bere eraginkortasuna ziurtatzeko behar duen berehalakotasun edo azkartasunarekin, Ogasun eta Finantza Departamentuko langileek zuzenean entregatu ahal izango dute jakinarazpena.

Aipatutako araudiarekin bat etorritik, foru agindu honen bitartez ezartzen da zer baldintzatan adierazi ahal izango duten zergapekoek edo haien ordezkariak zein egunetan ezingo den jarri jakinarazpenik Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.

Horiek horrela, hau

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Orden Foral 312/2020, de 21 de julio, por la que se regulan los términos en los que los obligados tributarios pueden ejercitar la posibilidad de señalar días en los que el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa no podrá poner notificaciones tributarias a su disposición en la sede electrónica de ésta última.

El artículo 1 de la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, determina los obligados tributarios que deberán efectuar los trámites y comunicaciones de carácter tributario por medios electrónicos, estableciendo, asimismo, que están obligados a recibir por medios electrónicos las comunicaciones y notificaciones administrativas que les realice la Administración tributaria en el ejercicio de sus competencias.

Su artículo 6 dispone que el acceso a las notificaciones electrónicas practicadas por el Departamento de Hacienda y Finanzas se efectuará en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, identificándose mediante sistemas basados en certificados electrónicos, reconocidos o cualificados de firma electrónica o mediante la clave operativa emitida por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El apartado 8 del artículo 63 del Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril, establece que los obligados tributarios podrán señalar, en los términos que por orden foral del diputado o de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas disponga, un máximo de 30 días naturales en cada año natural durante los cuales dicho departamento no pondrá notificaciones tributarias a su disposición en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Así mismo, establece que el retraso en la notificación derivado de la designación realizada por el obligado tributario según lo dispuesto en el párrafo anterior se considerará dilación no imputable a la Administración tributaria a efectos de lo dispuesto en el artículo 100.2 de la Norma Foral General Tributaria. No obstante, cuando ello resulte incompatible con la inmediatez o celeridad que requiera la actuación administrativa para asegurar su eficacia, la notificación podrá efectuarse mediante la entrega directa del personal empleado del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Conforme a la normativa citada, por esta orden foral se fijan los términos en los que los obligados tributarios o sus representantes pueden señalar los días en los que no se pondrán notificaciones en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud

XEDATZEN DUT

DISPONGO

1. artikulua. *Jakinarazpen elektronikoa zein egunetan ez diren jarriko adierazteko eremu subjektiboa.*

1. Pertsonak edo entitateak behartuta badaude jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez jasotzera Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, edo, behartuta egon gabe ere, modalitate hori lehenetsi edo haren erabilera berariaz baimendu badute, adierazi dezakete zer egunetan ez den jarriko haien eskura jakinarazpenik egoitza elektronikoa horretan.

Egun horien adierazpenak hiru ekintza bilduko ditu, egunak hautatzea, horiek aldatzea eta kontsulta egitea, betiere foru agindu honen 3. artikuluan ezarritako mugak errespetatuz.

2. Egun horiek zergapekoen ordezkariak ere adierazi ahal izango dituzte behar bezala baimenduta eta akreditatuta badaude.

2. artikulua. *Jakinarazpen elektronikoa zergapekoen esku zein egunetan ez diren jarriko adierazteko eremu objektiboa.*

Aurreko artikuluan aipatutako pertsona edo entitateentzat, jakinarazpen elektronikoa haien esku ez jartzeko egunen adierazpenak Ogasun eta Finantza Departamentuak zerga arloko jarduketa eta prozeduretan egiten dituen jakinarazpen guztiak hartuko ditu, bai eta beste ente eta administrazio publiko batzuen baliabideak esleipenez edo mandatuz kudeatzean egiten dituenak ere.

3. artikulua. *Gehieneko egun kopurua eta egunak aldatzeko aukera.*

1. Foru agindu honen 1. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo entitateek gehienez 30 egun natural adierazi ahal izango dituzte urte natural bakoitzeko. Egun horiek libreki hautatuko dira, eta ez da beharrezkoa izango gutxienezko kopuru bat elkartzea.

2. Urte naturalean zehar jakinarazpen elektronikoko sistemaren barruan derrigor sartzen diren edo sistema horren bidezko jakinarazpena borondatez aukeratzen duten zergapekoek, uneko urte naturaleko 30 egun natural guztiak baliatu ahal izango dituzte, gainerako urte naturalek geratzen den denboragatik egunak hainbanatu beharrik gabe.

3. Jakinarazpen elektronikoa zergapekoaren esku ez jartzeko egunak urtero eskatu beharko dira, ondorioak sortu baino zazpi egun natural lehenago gutxienez, eta, egun horiek behin adierazita, beti aldatu ahal izango dira berariazko eskaera bat aurkeztuta. Eskaera horrek indarriz gabe utziko du hasieran aukeratutako epea, zergapeko bakoitzak urtean aukera ditzakeen gehieneko egun kopurua eta adierazi den gutxienezko aurrerapena errespetatuz.

Jakinarazpen elektronikoa ez jartzeko egunak ordezkari batek adierazi baditu, ordezkari horrek berak adierazitako egunak baino ezin izango ditu aldatu, eta ez du eskumenik izango zergapekoak edo beste ordezkariaren batek adierazitakoak aldatzeko.

4. artikulua. *Jakinarazpen elektronikoa zein egunetan ez diren jarriko adieraztearen ondorioak.*

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 63. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, jakinarazpena atzeratzen bada jakinarazpen elektronikoa ez egiteko egunen adierazpenagatik, atzerapen hori Administrazioari egotzi ezin zaion luzamendutzat joko da, erregelamendu horren 54. artikuluan ezarritako terminoetan.

Artículo 1. *Ámbito subjetivo para realizar el señalamiento de los días en los que no se pondrán notificaciones electrónicas.*

1. Cuando las personas o entidades estén obligadas a recibir las notificaciones por medios electrónicos a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, o cuando no estándolo hayan señalado su preferencia o consentimiento de forma expresa su utilización, podrán señalar los días en los que no se pondrán a su disposición notificaciones en dicha sede electrónica.

El señalamiento de los días mencionados comprenderá las acciones de selección de los mismos, así como su modificación y consulta de acuerdo con los límites señalados en el artículo 3 de la presente orden foral.

2. Podrán también realizar el señalamiento de los mencionados días los representantes debidamente autorizados y acreditados de los obligados tributarios.

Artículo 2. *Ámbito objetivo del señalamiento de los días en los que no se pondrán notificaciones electrónicas a disposición de los obligados tributarios.*

Para las personas y entidades mencionadas en el artículo anterior, el señalamiento de los días en los que no se pondrán a su disposición notificaciones electrónicas comprenderá las notificaciones que efectúe el Departamento de Hacienda y Finanzas en sus actuaciones y procedimientos tributarios, así como en la gestión de los recursos de otros Entes y Administraciones Públicas que tenga atribuida o encomendada.

Artículo 3. *Límite máximo de días y posibilidad de modificación de los mismos.*

1. Las personas y entidades mencionadas en el artículo 1 de la presente orden foral podrán señalar un máximo de 30 días naturales por año natural, siendo estos días de libre elección y sin necesidad de tener que agrupar un número mínimo de los mismos.

2. Los obligados tributarios que a lo largo del año natural sean incluidos con carácter obligatorio en el sistema de notificación electrónica o procedan a darse de alta voluntariamente para ser notificados a través de dicho sistema, podrán disfrutar de la totalidad de los 30 días naturales del año natural en curso, sin necesidad de prorratear los días por el período del año natural restante.

3. Los días en los que no se pondrán a disposición del obligado tributario notificaciones electrónicas se deberán solicitar anualmente, con una antelación mínima de siete días naturales al primer día en que vaya a surtir efecto y, una vez señalados, podrán ser objeto de modificación mediante solicitud expresa que dejará sin efecto el período inicialmente elegido, con los mismos límites respecto al número máximo de días anuales por obligado tributario y antelación mínima anteriormente indicados.

Cuando los días en los que no se pondrán a disposición notificaciones electrónicas hayan sido señalados por un o una representante, este representante sólo podrá modificar los días que el o ella hayan señalado sin que pueda modificar los días señalados por el propio obligado tributario o por otros representantes.

Artículo 4. *Efectos del señalamiento de los días en los que no se pondrán notificaciones electrónicas.*

1. De acuerdo con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 63 del Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril, el retraso en la notificación derivado del señalamiento de los días en los que no se pondrán notificaciones electrónicas se considerará dilación no imputable a la Administración, en los términos establecidos en el artículo 54 de dicho reglamento.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jakinarazpenak zergapekoaren esku ez jartzeko egunen adierazpenak egun horietan egin zitezkeen jakinarazpenetan bakarrik izango du eragina. Egun horiek ez dira inola ere deskontatuko jakinarazpena adierazitako lehen eguna baino lehen eskura jarzteagatik hasita dauden epeen konpututik.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Ogasun eta Finantza Departamentuak atzerapen hori ziurtatu behar du behar den eran akreditatuz noiz eta zein ordutan jarri ahal izan zen zergapekoaren esku jakinarazpen elektronikoaren xede den egintza.

5. *artikulua. Jakinarazpen elektronikoak zein egunetan ezin diren eskura jarri adierazteko prozedura eta baldintzak.*

1. Zergapekoen eskura jakinarazpen elektronikoak ez jartzeko egunen adierazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egin beharko da derrigor, <https://egoitza.gipuzkoa.eus> helbide elektronikoan.

Egunak behar bezala adierazi ondoren, dagokion aurkezpen agiria sortuko da, egiaztapen kode seguru batek baliozkotuta, eskaeraren eguna eta ordua ere agerian izango dituena. Beste edozein bide erabiliz aurkeztutako eskaerek ez dute ondorioz izango, eta artxibatu egingo dira, bestelako izapiderik gabe.

2. Aipatutako egunak adierazi behar dituen pertsonak foru agindu honen 1. artikuluan ezarritako eremu subjektiboaren barruan egon beharko du eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) eduki.

Xedapen iragankor bakarra. Foru Agindu hau 2020ko ekitaldian aplikatzea.

2020ko ekitaldian, foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, onartzen da ekitaldi osoetarako aurreikusitako 30 egun natural guztiak erabiltzea.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko uztailaren 21a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(3654)

2. El señalamiento de los días en los que no se pondrán a disposición del obligado tributario notificaciones en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa afectará exclusivamente a las notificaciones que pudieran haberse efectuado en los días señalados. En ningún caso estos días se descontarán del cómputo de los plazos que se hayan iniciado por haberse producido la puesta a disposición de la notificación con anterioridad al primero de los días señalados.

3. A efectos de lo dispuesto en este artículo, el Departamento de Hacienda y Finanzas deberá certificar el citado retraso, acreditando la fecha y la hora en que se pudo poner a disposición del obligado tributario el acto objeto de notificación electrónica.

Artículo 5. Procedimiento y condiciones para el señalamiento de los días en los que no se pueden poner a disposición notificaciones electrónicas.

1. El señalamiento de los días en los que no se pondrán a disposición de los obligados tributarios notificaciones electrónicas deberá realizarse obligatoriamente en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa en la dirección electrónica <https://egoitza.gipuzkoa.eus>.

Una vez que los días hayan sido señalados correctamente, se generará el correspondiente recibo de presentación validado por un código seguro de verificación, además de la fecha y hora de la solicitud. Cualquier otra solicitud presentada por cualquier otro medio carecerá de efecto alguno, procediéndose a su archivo sin más trámite.

2. La persona que vaya a señalar los días mencionados deberá estar comprendida en el ámbito subjetivo establecido en el artículo 1 de esta orden foral, así como disponer de Número de Identificación Fiscal (NIF).

Disposición transitoria única. Aplicación de la presente Orden Foral en el ejercicio 2020.

En el ejercicio 2020, a partir de la entrada en vigor de la presente orden foral, se permite la utilización de la totalidad de los 30 días naturales previstos para ejercicios completos.

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 21 de julio de 2020.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.

(3654)